

¡KU-KU!

Biotz berako tortollochoa
 Zegon urrugaz chara batean
 Non bere kabi guztiz gozoa
 Aritz mardulak zeukan gordean.
 Itur-burucho jostalluchoa
 Ala arkitzenenzan bere oñean
 Nola bildotscho churi gaiñoa
 Lo-lo chit umill garo tartean.
 Lanbro intza zan; ¡Udaberria!....
 ¡Zéñen eztia dagon mendia!
 Arzai mutilla: ¡jrintz *uju-ju!*
 ¿I baño obeto bizi dana dek
 Kale gizona aberats badek?
 Arzaia isill; choriak: —*¡ku-ku!*—

ANTONIO ARZÁZ.

1893-ko Maiatzean.

EUSKAL-ITZKRIBATZALLÉEN LIBURUETATIK BEREZITAKO LOREAK.

Ikasi bear duzu hainitz gauzetan zure buruari bortcha egitan, eta zure nahia garaitzen, bertzeekin batasunean bizi nahi baduzu.

* *

Nahi baduzu berthutean fermu egon eta goan aitzina, zure burua idukazu desterratu bat edo bideante bat bezala lurraren gainean.

* *

Errechago da garabik ez mintzatzea ezen ez hasiz geraztik ez sobera mintzatzea.

* *

Ez da bozkario egiazkorik konziencia onaren soseguan baizen.

* *

Erretiramendua oderresten da unghi begiratu denean; baina gaizki begiratzen bada, unhagarri da eta desgustagarri.

* *

Maiz nihor alegera ilkhitzen da, eta triste bihurtzen, eta arrats borkariozkoak goiz tristea dakarke.

CHOURÍO (*Jesukristoren imitazionea*).

